



KOSTU EGITURAK

Proiektu baten bideragarritasuna aztertzeko, ezinbestekoa da haren kostuen egitura ondo definitzea. Gastuen identifikazio egokiak aukera ematen du enpresak bere jarduera ekonomikoa modu eraginkorrean planifikatzeko eta etorkizuneko erabakiak oinarri sendo baten gainean hartzeko. Horregatik, atal honetan gure pilula-kutxa digitalaren kostuen egitura aztertzen da, proiektuaren funtzionamendua ahalbidetzen duten gastu nagusiak argi azalduz.

Gure negozio-ereduak ez du fabrikazio propiorik aurreikusten; produktua hornitzaile espezializatuari erosten diegu, eta guk banaketa, merkaturatzea eta bezeroarekiko harremana kudeatzen ditugu. Horrek esan nahi du kostuen egitura fabrikaziotik kanpo kokatzen dela, eta arreta berezia jartzen dela antolaketa, logistika, komunikazioa eta administrazioarekin lotutako gastuetan.

Testuinguru honetan, kostuak kostu finko eta aldagarrietan banatu ditugu. Atal honetan, bereziki, lehen hilabeteko kostu finkoak aztertzen dira, hasierako fasean proiektua martxan jartzeko beharrezkoak direlako eta enpresaren oinarri ekonomikoa ezartzen dutelako. Ondoren aurkezten den taulak gastu horien banaketa argia eta ulergarria eskaintzen du.

	Deskribapena	Kostua (€)
Hornitzailearekin hasierako kudeaketa	Harremanak, negoziazioak eta kontratuak	800 €
Administrazioa eta antolaketa	Proiektuaren kudeaketa orokorra	600 €
Marketin eta publizitate fisikoa	Eskuorriak, kartelak, erakusmahaietarako materiala	1.200 €
Biltegiatze espazioa (hilabete 1)	Stock txiki baterako alokairua	400 €
Salmenta osteko arreta	Telefonia, posta elektronikoa, kudeaketa	500 €
Beste gastu orokorrak	Ustekabekoak, material osagarria	300 €
GUZTIRA	(1. hilabeteko kostu finkoak)	3.800 €